

SUA EGIN AURRETIK

- Edozein eraikin, ibilgailu, argindarraren lineetatik edo landaredi altutatik **urrun kokatu sua**. Gutxienez, sutarako egur-piloaren altuera baino 5 aldiz urrunago.
- Sua hedatu ez dadin, **garbi** eduki pilaketa-ren ingurua.
- Haizeak indarrez jotzen badu, baliteke sua **bertan behera utzi** beharra izatea. Gozatu gauaz arriskurik gabe.

SUA PIZTUTA DAGOEN BITARTEAN

- Sua pizteko **ez** erabili **likido sukoirik**, alkohola edo gasolina bezalakoak.
- **Ez bota** piroteknia-objekturik sutara edo haren inguruan, ezta esprai, ontzi, zabor edo plastikorik ere, ke toxikoak sor baititzakete.
- Pertsona heldu bat egon dadila beti **sua gainbegiratz**en.
- Mangera bat, sua jotzekoak edo su-itzal-gailu bat izan beti inguruan, badaezpada.
- Jaia bukatzean, egiaztatu ez dela **txingarririk** edo **hausberorik** geratzen, ura, harea zein lurra erabiliz horretarako.

SAN JUAN SUAK

ERREZ GERO

- **Uraz busti** berehala azala erre den partea, tarte luze batean (15 minutuz).
- Hasieran, **ez jarri pomadarik** ez desinfektagaririk.
- Erredura sakona edo zabala bada, **deitu SOS DEIAK 112** zerbitzura, eta eraman zauritua osasun-zentro batera, erretako aldea airean utzita edo serum-etan bustitako gaza esteril batez estalita.